

UZTURREKO BARTOLE ETA BARRABASEN KONDAIRA

Aitonak kontatua da kondaira hau, eta hari, bere amonaren lagun batek. Senarraren amonak hari... ez dakigu noizkoa den honenbestez. Ia inor ez da oroitzen ordea, nahiz eta, tarteka, bizi denaren arrastoak erakutsi gudan.

Uzturre mendian bizi zen Bartole-ren istorioa da honakoa, diotenez, Izaskungo akelarreak debekatu zituztenetik, bertako basoetako baserri batera ihesi joana. Bartole, “baratzeko jeinua” bezala ere ezaguna, aztia zen lurra eta baratzarekiko kontuekin loturiko guztian. Landareak inor baino hobeto ezagutzen zituen, eta esaten dutenez, bere baratzeko landare bakoitzari izena jartzen zion:

- Nor dira eta nire errespetua erakutsi nahi diet horrela- komentatzen omen zuen.

Barazkien erreakzio guztiak, ilargiaren eraginak eta egutegia, eguzkiaren indarraren arabeko lanak ezagutzen zituen, eta zenbaiten esanaren arabera, baratzeko landareak gaixotzen zirenen, basoko belarrekin egindako infusioak prestatzen omen zituen landareak animatzeko. Jakintza guzti hau beste herritarrekin elkarbanatzen zuen, eta beti prest zen laguntzeko.

- Hildakoan ez dut nahi nirekin ezer eraman nahi. Nire jakintza denona da, zaharrekin eta gazteekin ikasi dudana.

Gozatu egiten zuen horrela. Jendea Uzturrera igotzen zen bere bila, eta hantxe azaltzen omen zitzaizen bidean tertulian aritu eta kontseiluak emateko. Diotenez, hortik dator hainbeste jende Uzturrera igotzeko ohitura. Jarraitu du ohiturak, baina ahaztu zaigu Bartole.

Mendia ibiltzea gustatzen zitzaion, baita zituen ahuntz, behi, eta ardiekin gaztak egitea, edota bertako sagastietako sagarrekin sagardoa (“edari bekatariena” deitzen zion), baina batez ere baratzean lan egitea. Diotenez, ez omen zuen inoiz dirua erabili. Herrira jaisten zenean, tabernetara joatean, bere baratzeko produktuen trukearen bitartez hartzen omen zuen ardoa. Maite omen zuen ozpinetako piparrak jatea ere, eta beti eskatzen zuen tabernan platerka bat ardoari laguntzeko. Pipar zale sutsua zen, eta hark zabaldu zuen piparrak jatearen ohitura Ibarra. Parranderoa zen, makina bat gaupasa egindakoa, eta bertsotan aritzen zen behin baino gehiagotan. Esaten dutenez, Uzturre inguruetan ere, Lari bere asto eta Egan akerrarekin ere, aritzen omen zen.

Ezkur koloreko ile luzea zuen, bizarra gorri-gorria, begi berde-berdeak, begi inguruneak ikatzez markatuak eta titi handiak agerian ibiltzea gustatzen zitzaion, batez ere udako beroaldi eta udazkeneko hego haize egunetan. Andragizon esaten zioten. Komunioa egiteari uko egin omen zion, Eliza ez zuelako gustuko, eta hasiera batean jende askok onartu ez bazuen ere, gerora errespetatu egin zuten. Natura bezala, libre izan nahi zuela zioen, eta beti zegoen edozeinekin edozein kontuz hitz egiteko prest. Erantzunak baino, galderak zituen maiteago, eta galdera haien jira-biran solasean aritzea.

Ibarra herria zuen gustuko, nahiz eta Tolosako azokara larunbatero joatea derrigorrezkoa zen berarentzat, giroa atsegin zuelako. Baina Ibarra desberdina zen. Baratzez josia zegoen, eta berak horrekin gozatzen zuen. Etxe bakoitzak bazuen bere baratze saila, harriz inguratua, baina irekia zena edozein herritarrentzat, eta tertulian aritzen ziren edozein hizketagai aitzakia hartuta, atsedena aprobeztatuz. “Baratzea duenak, jaso du oparia, aza amaitzean jasotzen du arbia” esaera garaikoa zen. Orduan ez omen zeuden oraindik gaurko hazitegi eta landare etxeak. Baratzeetan denetarik zegoen: sagastiak, udareondoak, barazki ugari, sendabelarrak asko, lihoa, tabakoa... eta baita loreak ere. Batzuk ez omen zioten loreak edukitzeari zentzurik aurkitzen, ez zituztelako jaten, eta desagertzeko zorian egon ziren. Baina berak defendatu egin zituen: bere ustez, jendea alaiago jartzen zutelako, halako atmosfera positiboa eraikiz, eta halaxe mantendu ziren. Loreak bai, baina batez ere piparrak eta haren kulturaren defendatzaile sutsua zen. Piparra berezia zela zioen, egunerokotasuneko monotonia apurto eta gizakiari

pikardia ematen ziolako. Bera izan zen Ibarra piparrarekiko maitasuna eta kultura zabaldu zuena, bertako ikur bilakateraino.

Baratz herria zen Ibarra batik bat hala ere, bertako herritarrentzat hura zen erlaxazioa eta patxada, oreka. Animaliak ere bazeuden, asko: idi, asto, oilo, zaldi, behi, ardi, ahuntz, txerri... eta bakoitzak bere txokoa aurkitzen omen zuen. Haien ximaurrak eta su baxuko su-hautsak ziren ongarrri. Txoriak izutzeko, txorimaloak eta hildako beleak jartzen zituzten makiletan, baita ardi larruak zintzilika. Bisitan etortzean, “el pueblo jardin” deitzen zioten orduko Donostiako turistek.

Aldaketa gertatu zen ordea. Negu luze eta gogor baten ostean, Bartole Uzturre inguruan zebilen basoko fruitu bila. Eta hara non, kukua ez tulka nabaritu zuen. Ez zen ku-ku soinurik urte hartan. Herrira jaitsi zen, hango berri jaso eta jendearekin egoteko gogoz. Zur eta lur. “Dedio!” Harrituta geratu zen: erreka urdina zihoan Tolosa aldera, eta gurgil handiko tramankuluak zebiltzan baratzean bueltaka. Kendu zituzten harresiak, eta desagertu ziren atxurrarekin berriketan aritzen ziren emakumeak. Etxe barrura gotortu ziren, haurrak zaindu eta etxeko lanak egitera. Gizonak zebiltzan traktorean...

- Ze pasatzen dek hemen? –galdetu zion-.
- Paper fabrika ireki dute, eta han hasi gattunk lanean, orain di-da makina hauekin lana errazago egiten diñagu.
- Baratzeak denbora behar du ordea... –esan zuen asaldaturik-.
- Gero pozima magikoak botata, landare bikainak jasoko dizkiau, eta lan gutxiago eginda – halaxe hitz egiten zioten hika, neska/mutil nahastuan-.
- Nork esan dizue? Hausnartu eta hitz egin beharko diagu...
- Popatik hippie kontuk Bartole! Aurrerapena da...
- Naturatik ateratzea duk hori... Barrabaskeria galanta!
- Segi Uzturrera! Barrabas!

Beste herritarrengana joan, eta erantzun berdinak edo okerragoak. Haserretu zen Bartole, bere lagunak hala itxi zirelako, modu horretan. Sututa zegoen. Oreka apurtuko zela bazekien, azti gaiztoren baten trikimailua zela sumatzen zuen. Eta min egin zion, harrokeriatik eta goitik behera hitz egitea ordu arte laguntzat zituenak.

Denbora tarte hartu zuen Uzturren, lasaitzen saiatu zen mendiaren puntan. Haizearekin, ilargiarekin, izarrekin, eguzkiarekin, lurrarekin hitz egiten omen zuen halakoetan. Handik bi astetara itzuli zen hitz egitera Ibarra. Gutxiespena jaso zuen ordea. Haserre zegoen, inoizko haserreena. Eta part! Burrun!! Ibarra txuri-beltz kolorean jarri zen: tximistak hasi ziren, ximist!, ximist!, ximist!... laino berde batzuk etortzearekin batera. Belarriak estali behar izan arteko irrintziak entzun ziren, batzuk ziotenez, lau orduz.

Zerua berde zegoen, laino berde mardulekin, eta halako batean kazkabarra hasi zuen, barra-barra. Ez zen ohikoa ordea, harri berdeak bota zituen. Harriturik, ikaratuta zeuden herritarrak, etxean ezkutatuta, dar-dar bizian.

Etorri zen barealdia oster.

Hiru egunetara alajaina, baratzeak berde zeuden, belarrak hartuta. “Barrabas” deitu zioten belar hari, Bartoleren lana izan zelakoan. Handik aurrera harekin bizi beharko zuten, kendu ahala ateratzen baitzen egun batzuetara berriro. Diotenez, baratzean denbora gutxian lanak egin nahi izatearen festaondorena zen, izan ere, denbora gehiago behar zuten orain belar hura ateratzen; inbaditzailea zen, oso. Belar hura baratzean izatea, itsura txarreko eta utzikeriaren seinale ziren, eta belar pixka bat ateratzean, eta ez bazen kentzen, jendea zurrumurrutan hasten zen: “gaizki dabil”, “depresioa izango du”, “tabernan ordu gehiegi”...

Bartole jada ez da herrira joaten, utzi zion Ibarrara gerturatu eta bertakoekin kontuak egiteari. Uzturrera joan ziren, joaten dira, askotan, Bartolorekin hitz egin nahian. Ezin, ezinezkoa da bera topatzea. Esan zutenez, behin agertu zitzaien mendizale batzuei. Bartoloren barrabaskeriaz jakitun, galdetu zioten zer egin zezaketen, mesedez laguntzeko. Barrabasa etsaia ez zela erantzun zioten, ez hala ikusteko. Barrabasak lagundu dezake letxuak kontentuago egoten, esaterako.

- Entzun egin beharko diozue, eta harekin elkarbizitzen ikasi. Jateko ere bikaina den entsaladan, zapore berezikoak. Modan jar ezazue, probatu eta gozatu. Baina bertan egongo da, baratzeen zaindari, eta nahiko denbora baratzean igarotzen ez baduzue, jakinaraziko digu berak.

Bartole bizirik omen dago askoren iritziz, eta udako euri zaparrada mardulak, udako usain berezi hori izaten dutenak, bera bertan izan omen denaren seinale omen dira, baratzeko lehortek laguntzera etorria.

*Jakoba Errekondoren esanak, Peru eta Ekuadorreko Achuarren kondairak, eta bibliografia pixka bat erabilia sorturiko kondaira.